BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4689

AGINDUA, 2013ko urriaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, 2013ko ekitaldiko Euskal Merkataritzako Sarien deialdia ebazten duena.

Euskal Merkataritza Sariak arautzen dituen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko martxoaren 16ko Aginduaren 9. artikuluan zehaztutakoaren arabera (2011ko martxoaren 28ko EHAA, 60. zk.), eta 2013ko ekitaldiko deialdia iragarri zuen Merkataritzako zuzendariaren 2013ko ekainaren 12ko Ebazpena ikusita (2013ko ekainaren 20ko EHAA, 118. zk.), eta horretarako izendatutako epaimahai kalifikatzaileak eginiko proposamena ezagututa, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2013ko ekitaldiko Euskal Merkataritza Sariak ematea, kategoria bakoitzean ondoren aipatzen diren irabazleei:

- Merkataritza-Berrikuntza: Beldui Txakolina.
- Ibilbide Profesionala: Jesús Matía, Matía Bitxitegiaren jabea.
- Tolosako Merkataritzaren Foroa: Tolosa Merkat.

Enpresa Lankidetza Kategoriari dagokion saria, hutsik uztea erabaki da.

Bigarrena.– Onuradunek, 2011ko martxoaren 16ko Aginduan ezarritakoari jarraituz, aintzatespen edo aipamen publikoa jasoko dute, horretarako antolatzen den ekitaldian.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Aginduaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezarri ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 21a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.